

## JESUS ETA EMAUSTARRAK

1

“Jesus Gurutzean hil da  
ta gureak egin dau  
hemen amaitu da hau”.  
Emausko ikasleentzat  
barru ta kanpo da gau.  
“Gizonak hilgo nabe bai,  
baina Aitak biztuko nau”  
Guzur ete da danau?  
Inoiz baino urrunago  
dago gaur gure Emau!

2

Burumakur ta isilik  
gaur Emausko bidean,  
biak bakardadean;  
ikusiak ikusita  
dana dago aidean.  
Ezezaguna bat sartu da  
bien atzekaldean,  
eta blaust bat-batean:  
“Ze kontu darabiltzue  
hemen zuon artean?”.

3

“Nungo kanpotar zaitugu  
zer dan ez dakizuna  
gaurko gertakizuna:  
Nazaretoko Jesusen  
azken triste iluna?  
Bera Mesias zala ta...  
Berak esan euskuna.  
Guk emon erantzuna;  
gurutzan hil dabe eta  
hau da etorkizuna!”

4

“Hau zentzungabe pare  
ulertzeko motela,  
jokatzeko txepela!  
Ez al egoan esanda  
hola hilgo ebela?  
Gurutzera epaitua,  
lapur gaizto bezela,  
ez al da hau horrela?  
Lehenago esandakoa  
zelan bete bestela?”.

5

“Gaua da ta geldi zaitte,  
hartu gugaz ostatu”;  
eskatu ta eskatu,  
eurekin gelditu zan ta  
Afaría ospatu.  
Bizi zala ohi ebanetz,  
ogia bedeinkatu  
ta eskuz zatikatu...  
Orduan ezagutu ta  
nahi eben besarkatu.

6

“Maixua bera izan dok,  
ez al deusok igarri,  
bidean ze pozgarri”?  
Bideko bizikizuna  
kontatuaz alkarri.  
Bihotzean jai danean  
behar da iragarri,  
kanpai edo txintzarri...  
Munduak jakin dagian  
bizi Danaren barri.